

# LEZOKO I. HERRI OLINPIADA

---

**L**ezon gazte “mugimenduaren” arrastorik ez zen somatzen Txerrimuñokoa alde batetara utziz eta gazte multzo batek egoera aldatzearen beharra garbi ikusten genuen, baina, nola hasi alternatiba berriak jorratzen? nola aldatu giro ezegoki hau?

Beste herrietako gazte jendareekin harremanetan jarri ginen ideiak lortzeko asmotan, ideietatik egokiena Herri Olinpiada ikusten genuen gure herriko jendearen ezaugarriak ikusita.

Hasieran laupabost pertsonen “puntazoa” zena, indartzen joan zen jendeari erdi proiektua azaltzen gindoazen heinean eta batzordea osatzeko aukerak haunditzen joan ziren. Azkenean batzordea osatu genuen koadrila ezberdineko jendareekin, berehala funtzionatzen hasi ginelarik.

- \* Lau helburu nagusi markatu genituen:
- \* Herriari irtenbide edo alternatiba berriak ematea.
- \* Euskal giro batez EUSKERA bultzatzea.
- \* Koadrila ezberdinetako harremanak sendotzea.
- \* Ondo pasatzea.



*Kirolari Olinpiko guztiak Markesanen eguzkia hartzen.*





*Batzorde Olimpikoa olinpiadak bukatu eta atseden hartzen.*

Helburuetan oinarriturik probak prestatzen hasi ginen elkarlanen funtzionatzen, esperientzi eza kontutan harturik. Batzordea 14 pertsonen osaturik dago eta lana ez da oso pisutsua egin, nahiz eta ardura handiena bi pertsonen eraman.

Batzordearen funtzionamendua eta inplikazioa denon ustez azpimarratzekoa izan da, giro oso "majoa" lortu dugu eta honek lana nabarmenki erreztu du.

## **EKINTZA BERA:**

Herri Olinpiada proba ezberdinez osaturik egon da:

- \* IBILALDI NEURTUA.
- \* MARATOIA.
- \* MAHAI JOKUAK.
- \* JOKE-ERRATZ
- \* SKY LASTERKETA.
- \* ALTXORRA BILA.
- \* FUTBITO.
- \* GINKANA.





*Laino guztien azpitik eta oztopo guztien gainetik...*

Probak burutzeko orduan ere helburu batean jarri ditugu indarrak, ahal den neurrian konpetibitatea ez bultzatzea, nahiz eta lortzeko helburu zaila izan gizartearen egoera ikusita.

Maiatzeko asteburu guztietan izan dira Herri Olinpiadak Lezoko kaleak alaitzen.

Guztiok gauza asko ikasi dugulakoan gaude eta herriko gazteen arteko harremanak nabarmenki sendotu dira, lehen zegoen giro hura deuseztuz.

Partehartzaileen erantzuna "ezin hobea" izan da, hamasei talde izan dira herri olinpiada hauetan parte dutenak eta proba guztietan 100 pertsonak inguru parte hartu dugu.

Herriko esparru gehienetako jendea biltzea lortu dugu; Txerri, poteoko jendea, neskak, mutilak... Eta hau izan daiteke benetan bete gaituena.

Oso positiboki baloratzen dugun beste gauza, hizkuntzarena izan da, batzuk kosziente eta beste batzuk ez hain kosziente gure hizkuntzean, EUSKARAZ, funtzionatu dugu. Honek agian jende mota bat kanpoan utzi du, baina euskeraren indartzea esparru guztietan "behar" bat sortzean datzala uste dugu, guk gure "harritxoa" jarri dugu euskarak behar duen, eta guztiok osatu behar dugun "piramidearen" gainean.

Herri Olinpiadak amaituta, lanean jarraitzeko asmoak ditugu, gazte arloan alternatibak sortzen.

"Herri Olinpiadak amaituta, lanean jarraitzeko asmoak ditugu, gazte arloan alternatibak sortzen.

"Herri Olinpiada batzordea" izenari amaiera emango diogu, beste izen bat, "ZABARRE GAZTE TALDEA", hartuko dugularik.





*Nahikoa lan  
izan zen  
batzutan.*



*Igande  
goizetan  
zeuden  
kirolariak  
preskoen.*

Gazte talde honek, atek irekiak izango ditu Lezoko gazte guztientzat. Honekin Lezoko gazteen mugimenduari hasiera emango diogu, gure mobidak, gure alternatibak, guk guztiok prestatzeko eta gozatzeko.

**ZABARRE GAZTE TALDEA**